

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4925

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 4koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez iragartzen baita zerrendatutako finak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia; finka horiek Muskiz, Zierbena eta Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena udalerrietan daude, «Petronorreko findegiaren eta Bilboko portuaren artean igarotzen den poliduktua handitzeko proiektua» izeneko poliduktu kanalizatua instalatzeko proiektuaren eraginpean. Instalazioaren titularra Petróleos del Norte SA da.

Espediente-zenbakia: 48-CG-Y-2022-00008.

Industria Administrazioiko Bizkaiko lurralde-ordezkararen 2023ko urriaren 16ko Ebazpenaren bidez, aipatutako poliduktu kanalizatuaren instalazioa onura publikokoa dela deklaratu zen.

Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 105. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikokoa dela deklaratzeko berekin dakar eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra, eta, ondorioz, okupazioa lehenbailehen egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikularekin bat etorriz (1954ko abenduaren 17ko BOE), Lurralde Ordezkaritza honek erabaki du eraginpeko eskubideen eta ondasunen jabe eta titularrei deitzea eraginpeko ondasunak dauden udalerrietako udaletxeetara (Bizkaiko Lurralde Historikoan). Hor egingo dira eraginpeko ondasunak okupatu aurretiko aktak eta, beharrezkoa bada, behin betiko okupazioaren akta.

Eraginpeko ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten titularrak eta horretan bestelako interesak dituzten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, beren ordezkari baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatuzko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioaren azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notarioren batekin ere joan daitezke.

Honekin batera dagoen zerrendan aditzera emandako egun eta orduan egingo dira aktak, eta hori zitazio-zedularen bitartez emango zaio jakitera titular bakoitzari, non lekua, eguna eta ordua adierazi beharko baitira. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako argitalpenak ere egingo dira.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, bai interesdunek bai argitaratutako zerrendetan aipatu ez diren interes errealean eta interes ekonomikoen titularrek nahi adina alegazio aurkez ditzakete, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendetan egindako akatsak zuzentzeko, hain justu ere idazki bat Bilboko lurralde-bulegoan aurkeztuta (Concha Jeneralaren kalea 23, 5), alde aurretiko aktak egiteko izendatutako egunera arte.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluen bigarren arauan aurreikusitakoari jarraikiz, iragarki honek hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, eraginpeko ondasun eta eskubideen titular ezezagunei eta helbide ezezaguna dutenei.

Bilbao, 2025eko azaroaren 4a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.

2025eko azaroaren 19a, asteazkena

ERANSKINA

ALDEZ AURRETIKO AKTETARAKO ZITAZIOA

PETRONORREKO FINDEGIAREN ETA BILBOKO PORTUAREN ARTEAN IGAROTZEN DEN POLIDUKTUA HANDITZEKO PROIEKTUA
MUSKIZ, ZIERBENA ETA ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENAKO UDALERRIETAN (BIZKAIA)

Espedientea: 48-CG-Y-2022-00008

Udalerria	Finka-zenbakia	Erreferentzia katastrala	Poligonoa	Partzela	Titularra	Eguna	Hila	Ordua
Zierbena	ZI-3	913101108001	1011	08001	Zierplare SL	15	Abendua	09:30
Zierbena	ZI-19	913000100025	0001	00025	Punta Lucero SA	15	Abendua	09:50
Zierbena	ZI-17	913101201003	1012	01003	Merino Mugica Maria Carmen	15	Abendua	10:10
Zierbena	ZI-18	913000100026	0001	00026	Zabala Elosegui Juan Manuel	15	Abendua	10:30
Zierbena	ZI-15	913101201009	1012	01009	Petroleos del Norte SA	15	Abendua	10:50
Zierbena	ZI-15 Ocup.	913101201009	1012	01009	Hnos. de Soto Castro Raimundo Javier Soto	15	Abendua	10:50
Zierbena	ZI-4	913101109001	1011	09001	Promociones Isamega SL	15	Abendua	11:10
Zierbena	ZI-4 Ocup.	913102409008	1024	09008	Setien Gonzalez Eva	15	Abendua	11:10
Zierbena	ZI-2B	913102409008	1024	09008	Promociones Isamega SL	15	Abendua	11:10
Zierbena	ZI-6	913101102015	1011	02015	Zierbenako Udala	15	Abendua	12:00
Zierbena	ZI-6 Ocup. 1	913101102015	1011	02015	Saavedra Avelino	15	Abendua	12:00
Zierbena	ZI-6 Ocup. 2	913101102015	1011	02015	Garcia Belen	15	Abendua	12:00
Zierbena	ZI-8	913000200495	0002	00495	Zierbenako Udala	15	Abendua	12:00
Zierbena	ZI-8 Ocup.	913000200495	0002	00495	Saavedra Avelino	15	Abendua	12:00
Zierbena	ZI-1	913000600001	0006	00001	Ekonomia eta Ogasuneko Probintzia Ordezkaritza	15	Abendua	13:00
Zierbena	ZI-5	913101104004	1011	04004	Zierbenako Udala	15	Abendua	13:00
Zierbena	ZI-2	913101107001	1011	07001	Zierbenako Udala	15	Abendua	13:00
Zierbena	ZI-7	913000200592	0002	00592	Zierbenako Udala	15	Abendua	13:00
Zierbena	ZI-9	913000200699	0002	00699	Zierbenako Udala	15	Abendua	13:00
Zierbena	ZI-10	913101102014	1011	02014	Zierbenako Udala	15	Abendua	13:00
Zierbena	ZI-11	913000200491	0002	00491	Zierbenako Udala	15	Abendua	13:00
Zierbena	ZI-13	913000200710	0002	00710	Zierbenako Udala	15	Abendua	13:00
Zierbena	ZI-14	913000100480	0001	00480	Zierbenako Udala	15	Abendua	13:00
Zierbena	ZI-16	913101201012	1012	01012	Zierbenako Udala	15	Abendua	13:00